

“Ingurumenean dugun eragina eta ingurumenak gugan duena ulertzeko”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Jone Iraeta Orbegozo

Ingurumen-psikologoa



Jone Iraeta Orbegozo

Ikaztegieta, 1997.

- Psikologian gradua lortu ondoren, **Ingurumenean Aplikaturiko Gizarte-zientziak masterra** egin zuen.
- Global Training bitartez, **praktikak egin ditu ingurumen-arloan eta alor sozialean** jarduten duen aholkularitza-enpresa batean.

Jone Iraeta Orbegozok lehen hitzetik aitortu du jendeak aurpegi arraroarekin begiratzen diola ingurumen-psikologoa dela esaten duenean. Hori dela eta, ingurumen-psikologoaren zeregina zertan datzan argitu du, hasteko: "Pertsonak beren ingurune fisikoarekin duten harremana aztertzen dugu". Diziplinartekoa dela nabarmendu du, eta lagungarria dela ingurumenean dugun eragina eta ingurumenak gure pentsamendu, sentimendu eta jokaeretan duen eragina ulertzeko. "Gizartearen ongizatea lortu nahi da, eta hori ezinezkoa da inguratzen gaituena kontuan izan gabe", adierazi du Iraetak.

Berez, Psikologia Klinikoa egiteko asmoa zuen, baina, Psikologia graduaren hirugarren urtean, Txilera joan zen, eta, dioenez, orduan bide "pixka bat alternatiboa" hartu zuen. "Txileko Unibertsitatean asko lantzen dute psikologia soziala; komunitarioa, batez ere. Eta asko gustatu zitzaidan".

Master bat egitea erabaki zuen, Sevillan. Zientzia sozialak ingurumenera aplikatuta lantzen ditu masterrak, eta, Iraetaren esanean, benetan da diziplinartekoa: "Han batzen dira ingurumen-arlotik datozenak, adibidez Biologia, Ingeniaritza eta horrelakoak egin dituztenak, eta Antropologia eta Soziologia eta halakoetatik datozenak".

Masterrean konturatu zen hori zela bere bidea. Jarraian, Global Training bekari esker, Kolonbian egon da, 8 hilabete, aholkularitza sozial batean. Haren esanean, Kolonbian ikuspegi askoz ere zeharkakoagoa dute lana egiteko; "hau da, taldeak beti dira diziplinartekoak, eta ingurumeneko

proiektuetan beti hartzen dute aintzat alderdi soziala, eta alderantziz. Ikasteko sekulako aukera izan da".

Iraeta proiektuen koordinazioan aritu da. Adibidetzat, hasi berria zuten proiektu baten gaia aipatu du: erauzketa-egitasmoen eta energia berriztagarrietan oinarritutakoen finantzen gardentasuna. Zehaztu du hori dena egitasmoak kokatzen diren lurraldeetako jendearekin batera egiten dela, ikusiz haietaz zer datu diren interesgarrienak, formakuntza emanez datuak erabiltzen jakin dezaten, datuen eskuragarritasunaren balorazioa... Prozesu guztia lurraldeko hainbat talderen partaidetzari esker gauzatzen da.

Kolonbiatik hona etorrita, Iraetak uste dut ate bat irekitzen ari dela hemen ere horrela lantzeko proiektuak, eta gero eta ohikoagoa izango dela. Esaterako, orain arte, klimari lotutako ikerketetan, zientzia gogorretakoak ari ziren ikertzen, eta orain gero eta gehiago dira gizarte-zientzietakoak. "Dagoeneko, hasi dira beste kontzeptu batzuk aipatzen: justizia klimatikoa, pobrezia energetikoa eta halakoak".

Hala ere, bide hori oraindik hastapenetan dagoenez, lana aurkitzea zaila dela esan du. "Lan-deialdi gutxi daude, eta esperientzia dutenak hartzen dituzte". Gaztea izatea, beraz, muga bat izaten ari da; ez, ordea, emakumea izatea. "Orain arte ez dut diskriminaziorik sentitu generoagatik, eta gero ere ez dut uste arazorik izango dudarik, horrelako lanetan emakume asko aritzen baitira, eta ondo hartuak dira".

Momentuz Euskal Herrian bilatzen ari da, baina, urrunago zerbait sortzen bazaio, irekita dago edonora joateko: "Proiektu interesgarriak daude edozein lekutan, eta, profesionalki ez ezik, pertsonalki ere oso aberasgarria da atzerrira joatea". ●